

Etsaia ala laguna?

Duela urte batzuk, orain arte zientzia-fikzioazkoa zirudien hitz bat agertu zitzaigun gure hiztegian: Adimen Artifiziala. Gailu hau iraultzaile bezala kalifikatu izan da, industria eta lan mundua betirako aldatuko dituena. Hala ere, ikuspuntu kritiko batetik aztertu behar dugu. Benetan al da esaten den bezain onuragarria?

Lehenik eta behin, ulertu beharra dago begi-bistakoak diren abantailak dituela Adimen Artifizialak. Batetik, lan mekanikoa eta errepikakorrek inoiz baino hobeto egin ditzake, eta gerta daitezkeen ezustekoi erantzunez, gainera. Horretaz aparte, eskulanaren kostua jaisten du, eta eraginkortasuna eta produktibitatea igo. Hala ere, badaude haren kontra daudenak. Adibidez, lanpostu kopurua jaitsiko litzateke, eta beharbada, gizakiak guztiz ordezkatuko litzateke, industrian batez ere.

Aipatutako guztia kontuan hartuta, esango nuke zaila dela guztiz alde edo kontra egotea. Egia da ukaezinak dituen abantailak dakartzala, eta haren erabilpena positiboa izan daitekeela, betiere kontrolpean badugu. Lan ordezkapenari dagokionez, ez dut hain era negatiboan ikusten. Hainbat lanpostutan, giza adimena eta burmuina behar dira, makina hauek baino egokiagoak egora batzuetan. Gainera, Adimen Artifizialak berak lana sortzen du, programaketan adibidez.

Hori guztiagatik, Adimen Artifizialaren erabileraren alde kokatuko nintzateke. Tresna honek dituen gaitasunak ezin daitezke alferrik galdu, baina beti izan behar gara haren arriskuez konziente. Lan galerak ekiditeko, adibidez, gobernutik arautu beharko litzateke Adimen Artifiziala, hutsarte legalik ez agertzeko. Egia da horren atzean interes komertzialak daudela, baina gobernuek haien biztanleen ongizatea bermatu behar dute. Hala bada, elkarrekin bizi gaitzake makina hauekin, etsai bihurtu beharrean. Azken finean, denbora oro ari da garatzen teknologia, denbora oro hobetzen. Lehen Industria Iraultzan, jendearen lana makinek egingo zutela-eta beldur ziren. Gaur, milaka daude lantegietan, eta lana izaten jarraitzen dugu. Eta ez al da Adimen Artifiziala beste Iraultza bat?

Laburtzeko, Adimen Artifiziala tresna bat besterik ez da, eta gure esku dago zer egiten dugun harekin. Argi dago aldaketa nabarmena izango dela, baina haren beldur izan beharrean, ondo prestatu eta gure onurarako erabili behar dugu, beste hainbat asmakizunekin egin dugun bezala.